

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Azaroa hilabete epela izan da, orokorrean, Nafarroa osoan

Prezipitazioak ez dira batez besteko balioetara iritsi, eta urtegi-tako ur metatua % 36tik %38ra izatera pasa da hilabete batean

Asteazkena, 2018.eko abenduak 5

Azaroa hilabete epela izan da Nafarroa osoan kasik. Behatoki gehienetan 0,5°C eta 1,5°C arteko tenperatura-aldaketak jaso dira batez besteko balioekin alderatuta, eta prezipitazioak ez dira batez besteko balioetara iritsi eragin atlantiko handieneko zonan (% 50 inguruko balioak erregistratu dira) ezta Pirinioetako eta Lizarraldeko zonarrik garaietan ere (% 75-100 arteko balioak erregistratu dira nagusiki). Urtegi-tako ur metatua pasadan hilabetean % 36an egotetik orain % 38ra egotera pasa da.

Zonen arabera, Lizarraldeko, Erribera Garaiaren iparraldeko eta Nafarroa Erdialdeko behatokiaren parte garrantzitsu batean tenperaturak batez besteko balioetatik 0,1°C eta 0,5°C artean igo dira soilik, eta, beraz, zona horretan normaltasuna da nagusi. Erriberabeitiako estazioetan, hilabetea oso epela izan da, Lizarraldeko erdiko zona, Nafarroa Erdialdeko parterik handiena eta Pirinioetako sortaldea barne hartzen dituen zona horretan ohikoa den legez. Gainerakoan, giro epela nagusitu da.

Batez besteko balioetatik gehien aldendu diren estazioak Zarrakastelu (+2°C) eta Fitero (1,8°C) dira. Nekazaritzari dagokionez, urte oso epea izaten ari da, eragin atlantiko handieneko zonan eta Nafarroa Erdialdeko parterik handiena eta Pirinioetako eta Erribera Garaiko zona mugakideak barne hartzen dituen zonan izan ezik, horietan giro epela nagusitu baita.

Prezipitazioei dagokionez, hilabetea hezea edo oso hezea izan da Lizarraldea hegoaldeko erdian, Iruñeko arroan, Nafarroa Erdialdean eta Erriberan. Lizarraldearen iparraldean eta Pirinioetako parterik handiengan hilabetea normala izan da, eta ipar-mendebaldeko eskualdean eta Pirinioetako sortaldean, berriz, hilabetea lehorra edo oso lehorra izan da.

Nafarroan, gainerakoan, batez besteko balioak gaintu dira. Prezipitazioak orokorrean ez dira intentsitate handikoak izan, eta euri-egunak ohiko balioetatik oso urrun geratu dira, baita ipar-mendebaldeko zonan ere. Nekazaritzari dagokionez, urtea gaur arte lehorra edo oso lehorra izan da Nafarroaren ipar erdian, eta normala hegoalde erdian, modu isolatuan joera hezea agertzen badu ere.

Haize-bolada handienak Gorramendin (123 km/ordua hilaren 5ean, 118 km/ordua hilaren 4an eta 111 km/ordua hilaren 24an) eta Aralarren (109 km/ordua hilaren 11n) erregistratu dira.